



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko abenduaren 24a

123. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da software librearen eta estandar irekien erabilerara eta garapena susta ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua zehatz dezan. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, nazioko eta nazioarteko adopzioei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (5. or.).
- Galdera, Nafarroako errepideetan gatza botatzearen ondorio kaltegarriei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (5. or.).
- Galdera, Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotutako entitateei 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (6. or.).
- Galdera, Orreagako Udalarri 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (7. or.).
- Galdera, Orreagako udalerrian 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (7. or.).
- Galdera, Erroibar-Orreaga Fundazioari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (8. or.).
- Galdera, “32000 310000 7459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (8. or.).
- Galdera, “32000 310000 4459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (9. or.).
- Galdera, familia-bitartekotzari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (10. or.).

- Galdera, Indarkeria Sexistaren aurkako Neurriak Hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea betetzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (10. or.).
- Galdera, erakunde publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko duen Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurre-rapena, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Erronkari jatorrizko deituran kanpoko ardien esnea erabil ez dadin Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako erromanikoari aplikatuta” izeneko kontusailari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Interneteko banda zabaleko konexioari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak oinarrizko errentari dagokionez ezartzen duena betetzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea (16. or.).
- Erabakia, Nafarroako Arartekoaren egungo eginkizunak berraztertze aldera egin beharreko lege-aldaketak aztertze lan-talde bat eratzekoa. Foru Araubideko Batzordeak onetsia (16. or.).
- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aldaketak egiteko lehentasunei eta arloei buruzko lan-talde bat sortzeko eskaera. Foru Araubideko Batzordeak bazter utzia (17. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 2/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (18. or.).
- 3/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da software librearen eta estandar irekien erabilera eta garapena susta ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita software librearen eta estandar irekien erabilera eta garapena susta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, software libre eta estandar irekiak sustatzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko politika publikoek erronka bikoitza dakarte: lehiakortasun ekonomikoa hobetzea eta aukeren berdintasuna sortzea herritar guztientzat.

Software librearen eta estandar irekien aldeko apustuak berarekin dakar eredu ekonomiko iraunkorrerantz aurrera egitea, hain zuzen ere ezagutzan eta berrikuntzan oinarritzen den eta kalitatezko enplegua eta tokian-tokian aberastasuna sor dezakeen eredu baterantz. Administrazio publikoen esparruan, berriz, abantailak dakartza, zeren eta herritarrek eta administrazioek elkarrekin jardutea errazten baitu eta autonomia teknologikoa

ematen baitu. Izan ere, aukera ematen du programak eta aplikazio publikoak libreki erabiltzeko, administrazioen arteko lankidetzak-inguruneak sortuz, eta, horri esker, erabiltzeko dauden baliabideak optimizatzea lortzen da.

Haien erabilera, gainera, lagungarri suertatzen da administrazio publiko orori eskatzen zaizkion betebeharrak betetzeko: gardentasuna, informazioa eskuratzeko eta kontserbatzeko bermea, segurtasuna eta inbertsioaren babesa. Baina software libre eta estandar irekiek abantaila sozial handiak ere badituzte, erabilerraztasun handia eskaintzen dute eta sustatzaileentzako aukeren berdintasuna hobetzen dute, tokiko industria-ehuna sustatzeaz gainera, bereziki enpresa txiki eta ertainen esparruan.

Hori guztia dela eta, software librearen eta estandar irekien aldeko apustua eta haien sustapena aukera handi bat dira Nafarroarentzat. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Administrazio Publikoan software librearen eta estandar irekien erabilera susta dezan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko uztailaren 22ko 11/2007 Foru Legea betez.

2. Nafarroako Parlamentuak foru gobernua premiatzen du software librearen eta estandar irekien industria garatzean azpimarra jartzen duten I+G+B ekimenak susta ditzan, arreta berezia eskainiz tokiko enpresen ehunari eta horretarako foru erkidegoko unibertsitateek eta zentro teknologikoen eskaintzen dituzte aukerak aprobetxatuz.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua zehatz dezan.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko abenduaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua zehatz dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua zehatz dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua argi eta garbi zehatz dezan.
2. Artearen arloko adituak eta profesionalak izanen dituen patronatua izenda dezan.
3. Lehiaketa publiko bat egin dezan zentroaren jardunaz arduratuko den zuzendaria hautatzeko.
4. Proiektua Kultura eta Turismo Batzordean aurkeztu beharko da, batzordeak haren berri izan dezan eta azter dezan, 2010eko martxoaren 1a baino lehen.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko abenduaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroan Bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa berezi eta zehatz bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean, ondoren Parlamentu honetan aurkezteko.
2. Horretarako kontuan har dezan Nafarroan bertsolaritzaren alorrean lanean diharduen gizarte ekimenarekin hitzarmena egitea.

F saila:
GALDERAK

Galdera, nazioko eta nazioarteko adopzioei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, nazioko eta nazioarteko adopzioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Adopzioari buruzko galdera

1. Zenbat pertsona daude nazioko eta nazioarteko adopzioak egiteko itxaron zerrendan?

2. Zenbat itxaron behar da, batez beste, egokitasun ziurtagiria izapidetzeko?

3. Zenbat kasutan ukatu da ziurtagiri hori?

Iruñean, 2009ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako errepideetan gatza botatzearen ondorio kaltegarriei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako errepideetan gatza botatzearen ondorio kaltegarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako kontseilari eskudunak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako errepideetan botatzen den gatzari buruzko galdera.

1. Kontuan hartu al dira errepideetan gatza botatzeak dituen ondorio kaltegarriak ingurumena-
rentzat, animalientzat eta autoentzat?

2. Aztertu al da gatza ez den beste zerbait era-
biltzeko aukera?

Iruñean, 2009ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotutako entitateei 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotutako entitateei 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkiete Nafarroako Gobernuak edo haren mendeko enpresa publikoek 2000 urteaz geroztik Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotura duten entitateei? Laguntzen edo dirulaguntzen zerrenda jaso nahiko nuke, entitate onuraduna, laguntzaren zenbatekoa eta xedea zehazten dituen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 10ean.

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Orreagako Udalari 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Orreagako Udalari 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkiote Nafarroako Gobernuak edo haren mendeko enpresa publikoek 2000 urteaz geroztik Orreagako Udalari? Laguntzen edo dirulaguntzen zerrenda jaso nahiko nuke, laguntzaren zenbatekoa eta xedea zehazten dituen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Orreagako udalerrian 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Orreagako udalerrian 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer laguntza edo dirulaguntza eman dituzte Nafarroako Gobernuak edo haren mendeko enpresa publikoek 2000 urteaz geroztik Orreagako udalerrian, kontuan hartu gabe partikularrei, kolegio-elizari eta harekin lotura duten entitateei eta udalari emandakoak? Laguntzen edo dirulaguntzen zerrenda jaso nahiko nuke, laguntzaren zenbatekoa eta xedea zehazten dituen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 10ean.

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Erroibar-Orreaga Fundazioari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Erroibar-Orreaga Fundazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako 2010erako Aurrekontu Orokorren proiektuan, "Lurralde plangintza eta hirigintza planak" izeneko 310. programan, bi kontusail proposatzen dira, guztira 500.000 euro egiten dutenak, Erroibar-Orreaga Fundazioarentzat.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Noiz eratu da Erroibar-Orreaga Fundazioa?
- Nortzuk dira fundatzaileak?
- Nortzuk osatzen dute fundazioaren patronatua?
- Zenbateko kapitalarekin eratu da fundazioa?
- Zeintzuk dira fundazioaren helburuak, estatutuen arabera?
- Zer jarduera garatu ditu fundazio horrek orain arte?

Iruñean, 2009ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa

Galdera, "32000 310000 7459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa" kontusailaren helburuari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, "32000 310000 7459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa" kontusailaren helburuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako 2010erako Aurrekontu Orokorren proiektuan, "Lurralde plangintza eta hirigintza planak" izeneko 310. programan, bi kontusail proposatzen dira, guztira 500.000 euro egiten dutenak, Erroibar-Orreaga Fundazioarentzat.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer helburu, xede edo proiektura dago bideratuta "32000 310000 7459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa" kontusaila?

Iruñean, 2009ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa

Galdera, “32000 310000 4459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, “32000 310000 4459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako 2010erako Aurrekontu Orokorren proiektuan, “Lurralde plangintza eta hirigintza planak” izeneko 310. programan, bi kontusail proposatzen dira, guztira 500.000 euro egiten dutenak, Erroibar-Orreaga Fundazioarentzat.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer helburu, xede edo proiektura dago bideratuta “32000 310000 4459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusaila?

Iruñean, 2009ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, familia-bitartekotzari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, familia-bitartekotzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parla-

mentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Familia-bitartekotzari buruzko galdera

1. Zenbat kasutan erabili da familia-bitartekotza zerbitzua 2007an, 2008an eta 2009an familiako gatazkak konpontzeko?

2. Nolako kasuetan erabili da 22/2002 Foru Legearen 11. artikuluan zehazturiko tresna hori?

3. Zure iritzi du zure departamentuak familia-bitartekotza genero indarkeria kasu ez-larrietan erabiltzeari buruz?

Iruñean, 2009ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Indarkeria Sexistaren aurkako Neurriak Hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Indarkeria Sexistaren aurkako Neurriak Hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legearen betetzeari buruzko galdera.

1. Nafarroako Gobernuak bidali al ditu Parlamentura lege horren 3.3 artikuluan aipatzen diren urte anitzeko ekintza plan integralak?

2. Berrikusi edo egokitu al dira 5.2 artikuluan deskribaturiko eduki kurrikularrak? Hala baldin bada, zein dira berrikusi direnak?

3. Irakasleentzako laguntza zentroetan sartu al da genero indarkeriaren gaia, 5.4 artikuluan eza-ritakoari jarraikiz?

Iruñean, 2009ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, erakunde publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, erakunde publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren mendeko erakunde publikoetako gunekomunetan erlijio-ikurrak egoteari buruzko galdera.

- Ba al dago erlijio-ikurrik osasun zentro publikoren bateko gunekomunetan? Hala baldin bada, non?

- Ba al dago erlijio-ikurrik Nafarroako Auzitegi-ko edota Nafarroako epaitegiren bateko gunekomunetan?

Iruñean, 2009ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko duen Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurrerapena.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko duen Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurrerapena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2007ko irailaren 17an, Nafarroako Gobernuak 2008-2012 urteetan klima aldaketaren aurka jarduteko estrategia eta plana egitea onetsi zuen. Gaur arte, zenbait jardunaldi antolatu dira. Hona batzuk: Nafarroako Klimaren aldeko Planaren aurkezpena; Klima Aldaketari buruzko Diagnosiaren gaineko eztabaida-jardunaldia; klima aldaketari aurre egiteari buruzko jardunaldia; klima aldaketari aurre egiteko neurriak; egokitzeari buruzko jardunaldia; klima aldaketari egokitzeko neurriak.

Plan horren aurrerapenaren aurkezpena, aurtego ekainaren 12rako aurreikusita zegoena, irailaren bigarren hamabostaldirako atzeratu zen. Gaur den egunean, oraindik ere ez da planaren aurrerapena aurkeztu. Hori dela eta, hauxe jakin nahi du parlamentari honek:

Noiz aurkeztuko du Nafarroako Gobernuak Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurrerapena?

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Erronkari jatorrizko deituran kanpoko ardien esnea erabil ez dadin Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Erronkari jatorrizko deituran kanpoko ardien esnea erabil ez dadin Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontseilari Begoña Sanzberrori, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak eta Ingurumeneko, Landa Ingurueneko eta Itsas Ingurueneko Ministerioak baimena eman zuten Erronkari jatorri deituraren erregelamendua aldatzeko. Baimen hori Bruselara igorri zen, ikus-onespena emateko.

Bruselatik heldu den albiste berriaren aurrean –ezezkoa ematen zaio kanpoko arrazetako esnea erabiltzeari– eta jakinda aldi honetan halako esnea erabili dela Erronkari jatorri deitura duten zenbat produktutan, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak kanpoko behien esnea ez dadin erabil Erronkari jatorri deituran?

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako erromanikoari aplikatuta” izeneko kontusailari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako erromanikoari aplikatuta” izeneko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion, “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako erromanikoari aplikatuta” izeneko kontusailari buruz:

2008ko azken hiruhilekoan, Erromanikoaren Lagunen Elkartek (AdR) agerraldia egin zuen Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean, Nafarroako ondare erromanikoaren egoerari buruz duen iritzia jakitera emateko.

Agerraldi horren eta talde politiko guztiengan izan zuen eragin bikainaren ondorioz, parlamentu-taldeek 2009ko aurrekontuetarako zuzenketa bat adostu zuten, aho batez sinatua, 40.000 euro egiten zuena. Haren xedea zen “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako Erromanikoari aplikatuta” izenburupean eginiko proposamen batzuk aintzat hartzea.

Kontusail horren berririk izan ez dugunez amaitzeko dagoen urtean zehar, abenduaren 15etik 19ra eginiko “Erromanikoa Nafarroan” izeneko hitzaldi-ziklo bat alde batera utzita, hauxe jakin nahi dugu:

Galderaren testua

Zein jardueratan inbertitu da aipatutako kontusailan jasotako diru-kopurua?

Azal bitez programak, diru-kopuruak eta programa bakoitzean esku hartutako pertsonak edo entitateak.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Interneteko banda zabaleko konexioari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Interneteko banda zabaleko konexioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Ezagutu nahi dugu gaur egun banda zabaleko Internet-konexiorik ez duten Nafarroako herrien zerrenda. Halaber, horretarako dauden arrazoiak eta Nafarroako Gobernuak zer egingen duen gure erkidegoko herritar guztiek konexio hori edukitzea aukera izan dezaten.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedientei buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedientei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteen zerrenda, bai enplegua eteteari buruzkoak bai lan-kontratuak amaiazteari buruzkoak. Halaber, enplegu-erregulazioko espediente bakoitzaren baldintzak eta enpresa-batzordea horietako bakoitzean aldeko akordiorik hartu duen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak oinarrizko errentari dagokionez ezartzen duena betetzeari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak oinarrizko errentari dagokionez ezartzen duena betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, idatziz erantzuteko:

Bazterturik dauden edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonekin konprometitutako erakunde eta entitateek ohartarazi dute Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Legearen garapean ekarritako arazoei buruz.

Uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak, 2. artikuluan, oinarrizko errenta jasotzeko zenbatekoak eta epeak jasotzen ditu, eta ezartzen du 2010ean oinarrizko errenta jasoko duen pertsona batek lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 kobratuko duela.

Galdera

Oraingoz ez baita betetzen ari, zer egingen du Nafarroako Gobernuak ziurtatzeko legean ezarritakoa egiazki beteko dela? Nola aplikatuko zaizkie likidazioak familia-unitateei, haiek osatzen dituzten kideen kopuruaren arabera?

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Langileen Batzordearen 2009ko azaroaren 25eko Erabakiaren bidez eskatu zen 2009ko abenduaren 28tik 31ra bitarteko lan-asteen goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan harturik abenduaren 28, 29, 30 eta 31ko egunetako arratsaldeetan ez dela Parlamentuko jarduerarik izanen, eta kontuan harturik baita ere izandako aurrekariak, hau da, Aste Santuaren ondorengo lan-astea zela-eta Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen arteko erabakiak (lan aurreikuspenei lotuak, betiere), hona ERABAKIA:

1. Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko Erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea; hala-

tan, 2009ko abenduaren 28, 29, 30 eta 31ko lanaldia goizekoa izanen da, baina hori ez da eragozpen izanen langileek goizeko ordutegitik kanpo ere lan egin behar izateko, baldin eta Legebiltzarreko lanak horretarako beharra eragiten badu.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2009ko abenduaren 28, 29, 30 eta 31n, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia, Nafarroako Arartekoaren egungo eginkizunak berraztertze aldera egin beharreko lege-aldaketak aztertze lan-talde bat eratzea.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Arartekoaren egungo eginkizunak berraztertze aldera egin beharreko lege-aldaketak aztertze lan-taldea eratze erabakia, Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak 2009ko abenduaren 17an onetsia. Hona erabakiaren testua:

“1. Foru Araubideko Batzordean Nafarroako Arartekoaren egungo eginkizunak berraztertze aldera egin beharreko lege-aldaketak aztertze lan-talde bat eratzea.

2. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lan-taldearen osaerari eta funtzionamenduari buruz”

Iruñean, 2009ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aldaketak egiteko lehentasunei eta arloei buruzko lan-talde bat sortzeko eskaera.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aldaketak egiteko lehentasunei eta arloei buruzko lan-talde bat sortzeko eskaera aurkeztu zuen.

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko

Batzordeak, 2009ko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako eskaera baztertzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 2/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

2/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du ezen Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu Estatuan unean-unean indarra duten arau berdin-berdinak, hots, funtsez eta formaz berdinak, Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, behar diren

foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela tributu arloko foru legeak aldatzeko.

Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz, Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei Tributu Harmonizaziorako Legegintzako Foru Dekretuaren izena emanen zaie.

Bestalde, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35.4 artikulua ezartzen du ezen, Foru Komunitateari dagozkion zerga bereziak ordainarazteko orduan, unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak erabiliko dituela. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak jasoko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzeko pagatzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetatik sobera bereiziko ez direnak.

Higiezinaren Merkaturako Inbertsioko Sozietate Anonimo Kotizatuak arautzen dituen urriaren 26ko 11/2009 Legeak, zortzigarren azken xedapenean, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatu du Zenbait garraiobidaren gaineko zerga bereziari dagokionez eta, zehazki, motozikletei aplikatu beharreko zerga-tasen zehaztapenari dagokionez. Horrek guztiak 2009ko urriaren 28tik aurrera ditu ondorioak.

Motozikletei aplikatu beharreko zerga-tasen aldaketa horretan, eta aintzat hartuta Zenbait garraiobidaren gaineko zerga bereziaren tributazioa CO₂-ren isurien maila zehatzen arabera egiten dela, aldaketak sartu dira zerga-tasa horiei buruzko artikuluko 6. epigrafetik 9.era bitarte, biak barne.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetza erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren

30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikularekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikularen arabera Nafarroako Foru Komunitateak Estatuko lurraldean indarra duten arau berdin-berdinak -bai funtsari bai formari dagokionez- aplikatu behar dituen kasuak egokitzeko.

Bestalde, Zerga Bereziei buruzko Foru Legearen 42.1.d) eta 43.1.l) artikuluetan zeuden bi aipamen akastun zuzentzen dira.

Hori horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu eta ondoren azaldu bezala geldituko dira:

Bat. 42.1.d) artikulua.

“d) Aurreko letretan aipatutako garraiobideen zirkulazioa edo erabilera Espainiako lurraldean, Espainian horien behin betiko matrikulazioa eskatu ez denean, foru agindu honen hirugarren xedapen gehigarriarekin bat, horiek erabiltzen hasi eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean, betiere matrikulazioa Nafarroan egiten bada. Epe hori hirurogei egunekoa izanen da baldin eta titularraren ohiko helbidea Espainiako lurraldera aldatu izateagatik erabiltzen badira garraiobideak Espainiako lurraldean, betiere aplikatzen ahal bada foru lege honen 43. artikuluko 1.l) idatz-zatian jasotako kerkaria.”

Bi. 43.1 l) artikulua 4. zenbakia.

“4. Matrikulazioa foru lege honen 42.1.d) artikuluan aurreikusitako epean eskatu beharko da.

Hiru. 47.1 artikulua 6., 7., 8. eta 9. epigrafeak.

“6. epigrafea. 9. epigrafearen c) letran sartzen ez diren motozikletak, horien CO₂-ren isuri ofizialak 100 g/km-tik gorakoak ez badira.

7. epigrafea. 9. epigrafearen c) letran sartzen ez diren motozikletak, horien CO₂-ren isuri ofizialak 100 g/km-tik gorakoak eta 120 g/km-koak edo beherakoak badira.

8. epigrafea. 9. epigrafearen c) letran sartzen ez diren motozikletak, horien CO₂-ren isuri ofizialak 120 g/km-tik gorakoak eta 140 g/km-tik beherakoak badira.

9. epigrafea.

a) Epigrafe honen c) letran sartzen ez diren motozikletak, horien CO₂-ren isuri ofizialak 140 g/km-koak edo gorakoak badira.

b) Epigrafe honen c) letran sartzen ez diren motozikletak, horien CO₂-ren isuri ofizialak frogatzen ez badira.

c) 74 kW-eko edo hortik gorako EEE potentzia (100 zp) duten motozikletak eta gehieneko potentzia garbia, ibilgailuaren masa martxan dagoelarik, 0,66 kW/kg-koa edo hortik gorakoa dutenak, CO₂-ren isuri ofiziala edozein izanda ere.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta haren Hirugarren atalak 2009ko urriaren 28tik aurrera izanen ditu ondorioak.

3/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 3/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 3/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

3/2009 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan tributuak ezartzeko ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu. Horregatik, Foru Komunitateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari dagozkion aginduak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudiak araubide erkidean izan duen aldaketara egokitu behar ditu.

Higiezinaren Merkatuko Inbertsioko Sozietate Anonimo Kotizatuak arautzen dituen urriaren 26ko 11/2009 Legeak zenbait alderditan aldatu du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea.

Lehenik, jasanarazitako kuotei dagozkien kredituak osorik edo partez kobraezinak direnean zerga-oinarria murrizteari dagokionez, bi zehaztapen sartu dira: eperako edo prezio geroratuko eragiketen kasuan, urtebeteko epea zenbatuko da ordaindu gabeko epea edo epeak amaitzen direnetik aurrera; eta, gainera, nahikoa izanen da zordunari epe horietako bat kobratzeko erreklamazioa egina izatea auzibidean.

Bigarrenik, "subjektu pasiboaren inbertsioa" duten egoerei (eragiketak enpresaburuentzat edo profesionalentzat egiten direnean eta haiek direnean subjektu pasiboak), xedetzat berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideak dituzten zerbitzu-emaiteen kasuak gehituko zaizkie.

Hirugarrenik, %7ko tasa murriztuan sartuko dira etxebizitzetara soilik bideratutako eraikinak edo eraikinen zatiak erosteko aukera duten errentamenduak, eta %4ko tasa murriztuan, errentamendu horiek berak baldin eta administratiboki araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren edo sustapen publikokoaren kalifikazioa duten etxebizitzetara soilik bideratzen badira.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54.1 artikuluan xedatzen duenez, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat tributu araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu Foru Komunitatean Estatuan unean-unean indarra duten arau berdinberdinak, hots, funtsez eta formaz berdinak, aplikatzea, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko ditu. Legegintzarako eskuordetza Estatuko tributuen aldaketak argitaratzea rekin batera egiten dela ulertzen da.

Hori guztia dela eta, legegintzarako eskuordetza hori erabiliz, beharrezkoa da tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu baten bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikulua rekin bat.

Hori horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu eta ondoren azaldu bezala gelditu dira:

Bat. 24.1 artikulua 2. bis zenbakia.

“2. bis. Obrak egiten direnean, materialak ekarri zein ez, onuradunak administrazio publikoak izanik, horiek jasotzen direnean, Kontratu Publikoek buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 136. artikuluan ezarritakoarekin bat edo, kasua bada, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Testu Bateginaren 147. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bi. 28. artikuluko 4. atala.

“4. Zerga-oinarria proportzionalki murriztu ahal da, orobat, kargaturiko eragiketengatik jasana-razitako kuotei dagozkien kredituak, osorik edo partez, kobraezinak direnean.

Horren ondorioetarako, kreditu bat osorik edo partez kobraezina dela ondorioztatuko da baldintza hauek betetzen baditu:

1. Jasanarazitako zerga sortu zenetik urtebete igarotzea haren ondoriozko kreditua osorik edo partez kobratu gabe.

Nolanahi ere, eperako edo prezio geroratuko eragiketen kasuan, urtebete igaro beharko da ordaindu gabeko epea edo epeak amaitzen direnetik zerga-oinarria proportzionalki murriztu ahal izateko. Ondorio horietarako, eperako edo prezio geroratuko eragiketatzat hartuko dira kontraprestazioa ordainketa bakarraren edo hurrenez hurrenekoen bidez beteko dela itundu diren horiek, betiere, jasanarazitako zerga sortzen denetik azken ordainketa edo ordainketa bakarra egiteko epea amaitzen den arte urtebete baino gehiago igaro bada.

2. Egoera hori kasuko zergarako behar diren erregistro-liburuetan jasota izatea.

3. Eragiketaren hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jardutea, edo, bestela, eragiketaren zerga-oinarria, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta, 300 eurotik gorakoa izatea.

4. Subjektu pasiboak zordunari kobratzeko erreklamazioa egina izatea auzibidean.

1. baldintzan aipatutako eperako eragiketen kasuan, nahikoa izanen da zordunari epe horietako bat kobratzeko erreklamazioa egina izatea auzi-

bidean zerga-oinarria ordaindu gabeko epeari edo epeei dagokien proportzioan aldatzeko.

Aldaketa hiru hilabeteko epean egin beharko da, aurreko lerroaldearen 1. baldintzan aipatzen den urtebeteko epea bukatzen denetik, eta horrez gainera, zerga arloko administrazioari jakinarazi beharko zaio erregelamenduz ezartzen den epean.

Zerga-oinarria murriztu ondoren, ezin izanen da hura handitu, subjektu pasiboak kontraprestazio osoa edo zati bat kobratzen badu ere, salbu eta hartzaileak ez badu enpresaburu edo profesional gisa jarduten. Horrelako kasuetan, ulertuko da balio erantsiaren gaineko zerga jasotako dirukopuruetan sartuta dagoela, jasotako kontraprestazioaren proportzio berean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, subjektu pasiboak zorra auzibidean erreklamatzeari uko egiten badio, zerga-oinarria berriz aldatu eta handitu beharko du. Horretarako, erreklamatzeari uko egiten dion egunetik hilabeteko epean zuzenketa faktura bat luzatu beharko du, bidezkoa den kuota jasanarazteko.”

Hiru. 31.1.2 artikuluar d) letra gehitzea.

“d) Zerbitzu-emateen xede direnean berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideak, isurien murrizketa ziurtatuak eta isuriak murrizteko unitateak. Horiei buruzkoak dira martxoaren 9ko 1/2005 Legea, Berotegi-efektuko Gasen Igorpen Eskubi-deen Salerosketa arautzen duena, eta uztailaren 20ko 1031/2007 Errege Dekretua, Kiotoko protokoloaren malgutasun mekanismoetan parte hartzeko esparrua garatzen duena.”

Lau. 37. Bat. 2. artikuluar beste zenbaki bat (17.a) gehitzea.

“17. Etxebizitzetara soilik bideratutako eraikinak edo eraikinen zatiak erosteko aukera duten errentamenduak, garaje-plazak barne, gehienez ere bi unitate, eta horiekin batera errentan hartzen diren bertako eranskinak.”

Bost. 37. Bi. 2. artikulua.

“2. Ondoko zerbitzu-emate hauek:

1. Bigarren atal honen 1.4 idatz-zatiko lehenengo paragrafoan jasotako ibilgailuak eta gurpil-aulkiak konpontzeko zerbitzuak eta autotaxiak eta autoak eta agindu horren beraren bigarren idatz-zatian aipatutako ibilgailu motordunak ezinduentzat egokitzeko zerbitzuak, horien gidaria edonor izanik ere.

2. Etxebizitzetara soilik bideratutako eta administrazio boki araubide bereziko babes ofizialeko

etxebizitzaren edo sustapen publikokoaren kalifikazioa duten eraikinak edo eraikinen zatiak erosteko aukera duten errentamenduak, garaje-plazak barne, gehienez ere bi unitate, eta horiekin batera errentan hartzen diren bertako eranskinak.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du inda-

rra, eta ondoko atal hauen gainean izanen ditu ondorioak:

a) Bigarren eta hirugarren atalak 2009ko urriaren 28tik aurrera aplikatuko dira.

b) Laugarren eta bosgarren atalak aplikatuko zaizkie etxebizitzak erosteko aukera ematen duten eta 2009ko urriaren 28tik aurrera eskatu ahalko diren errentamendu-kontratuei dagozkien errentei, betiere erosteko aukera hori gauzatu ez bada.

